

arteka

**OFENTSIBA
KAPITALISTA
HEZKUNTZAN**



Ez da harritzekoa ‘hezkuntza komunitatea’ komuniston jardunarekin konfrontazioan sartzea. Izan ere, komuniston jardunak eta ikuspegiak ‘komunitate’ horren oinarriak ezbaian jartzen ditu. Esparru horretan, komuniston jarduna estatu kapitalistaren (eskola, unibertsitatea) eta hezkuntza kapitalistaren aurka bideratzen da; horien defendatzaile sutsuenak, berriz, euskal nazionalistak dira. Azken horiek han aurkitzen dituzte beren estatu-helburua gauzatzeko bitarteko eta indar nagusienak, klase ertainaren eta bere intelektualen feudo diren hezkuntza-instituzioetan, alegia.

Edulkia Contenido

6

10

26

42

EDITORIALA

Arteka

**Ikasle-subjektua eta
ikasle-langileak**

ELKARRIZKETA

Saioa Galarraga
*Ikasle Abertzaleak-
eko kidea*

**«Kalitatezkoa, doakoa eta
unibertsala izango den
proposamen bat eraikitzen
hasi beharra dago»**

KOLABORAZIOA

Ibai Berezibar

**Hezkuntzaren izaera
inposatzailea agerian**

ERREPORTAJEA

Mattin Aranburu eta
Naia Gurrutxaga

**Hamarkada bat
heziguneetan: nazio
askapenetik klase
independentziarako bidea**

Ikasle- subjektua eta ikasle- langileak

Editoriala

Azken urteetan Mugimendu Sozialistak hezkuntzaren esparruan konkistatutako lorpen guztien artean bat azpimarratu behar bagenu, hori 'Ikasle Mugimendu' subjektuari egindako kritika da, eta kritika hori autokritikaren forman gauzatu izana. Ikasle-langile subjektuaren aldarrikapen eta eraikuntza, eta indarrean den hezkuntza kapitalista gisa kategorizatzea, izan dira kritika horren bi aspektu ezagunenak, biak ala biak eztabaida eta konfrontazio politikorako aukera ireki dutenak.

Askok ebatzi du, berrikuntza horietan sostengatuta, Ikasle Abertzaleak egun dena eta orain dela hamar urte zena ez direla gauza bera. Eta egia da, gauza asko aldatu dira. Baina beste zerbait izateko egindako bidea ez da, aurka daudenen zoritxarrerako, ahanzturarako ibilbidea edo gertatu dena atzean utzi eta horrekiko inongo konpromisorik ez hartzeko bitartekoa. Kontrara, errealitateari egindako kritikak inplizitua du beti, eta esplizitu egin da askotan, ordura arte egindakoari kritika egitea eta, horrek, norbere buruari egindako kritikaz gain, marko estrategiko oso baten kritika dakar, hau da, oraindik ere askok anakronikoki eutsi nahi dioten horren kritika.

Ikasle-langilearen aldarrikapena eta unibertsitate kapitalistaren kritikak ordura arte hezkuntzaren instituzio kapitalistan indarrean egon diren harremanen kritika sakona dakar, eta horiekin batera nagusi izan den hegemoniaren pitzadura ideologikoa

Estatua 'herria' sortzen duen errealitate politikoa da, eta hezkuntzak kontzientzia (nazionala) sortzen du. Oinarrian, bi prozesuen gaineko kontrolari deitzen diote nazio-eraikuntza

Ikasle-langilearen aldarrikapena eta unibertsitate kapitalistaren kritikak ordura arte hezkuntzaren instituzio kapitalistan indarrean egon diren harremanen kritika sakona dakar, eta horiekin batera nagusi izan den hegemoniaren pitzadura ideologikoa. Euskal nazionalismoak hezkuntzaren esparruan bere hegemonia (euskal) *Ikasle Mugimendua*, (euskal) *eskola*, (euskal) *unibertsitatea* edota (euskal) *hezkuntza sistema* bezalako kontzeptu-sare positiboetan sostengatu du. Horien bidez konfrontazioa, sortzekotan, kanpora begira sortu du, 'komunitate' nazionalistaren barnean oreka eta bakea mantenduz.

'Herria' definitzen duenean prozedura berdina erabiltzen du nazionalismoak: 'herria' instituzio positibo da, barne-kontraesanik gabea, eta klase kontraesanak kontraesan nazionalaren arabera desitxuratzen dituen 'herria vs oligarkia' eskema sinple eta faltsua baliatuta. Hala, 'herriak' 'euskal' du aurrezki, nahiz eta bere baitan kapitalistak diren instituzioak eta botere harremanak jaso edo, hobeto esanda, nahiz eta 'herria' sortzen dutenak horiek izan.

Aipatutakoaren adibide asko ditugu nazionalismoaren historian, eta bere garrantzia agerikoa da teoria politiko nazionalistan: Estatua 'herria' sortzen duen errealitate politikoa da, eta hezkuntzak kontzientzia (nazionala) sortzen du. Oinarrian, bi prozesuen gaineko kontrolari deitzen diote nazio-eraikuntza. Izan ere, botere politikoak nazioa eta naziotasuna definitzeko gaitasuna ematen badu –hau da, nazio-kideak ez direneta defendatzeko gaitasuna–, hezkuntzaren gaineko kontrolak nazio-kideak sortzeko boterea ematen du, nazionalisten idurirako.

Gauzak horrela, ez da harritzekoa 'hezkuntza komunitatea' komuniston jardunarekin konfrontazioan sartzea. Izan ere, komuniston jardunak eta ikuspegiak 'komunitate' horren oinarriak ezbaian jartzen ditu. Esparru horretan, komuniston jarduna estatu kapitalistaren (eskola, unibertsitatea) eta hezkuntza kapitalistaren aurka bideratzen da; horien defendatzaile sutsuenak, berriz, euskal nazionalistak dira. Azken horiek han aurkitzen dituzte beren estatu-helburua gauzatzeko bitarteko eta indar nagusienak, klase ertainaren eta bere intelektualen feudo diren hezkuntza-instituzioetan, alegia (ikus 2021eko abenduko *Arteka* ulertzeko zein funtzio garrantzitsu betetzen duen hizkuntza instituzionalizazio burgesak honetan guztian).

Hezkuntzaren kritikak agerian utzi du zein den hezkuntza sistemaren funtzioa –lan indar merke eta sumisoa sortzea, Kapitalaren etekinak handitzeko– eta zeintzuk diren funtzio horiek gauzatzen dituzten figura autoritarioak –klase ertain pribilegiatuaren hezkuntza-lobbya–

Ikasle Mugimendu Sozialistaren jaiotzarekin batera, hezkuntzaren esparruan nazionalismoaren oinarriak eta bere sostengu politikoa kolokan jarri dira. Horretan garrantzitsuak izan dira lehenago aipatutako hezkuntzaren kritika eta ikasle-langilearen artikulazioa. Hezkuntzaren kritikak agerian utzi du zein den hezkuntza sistemaren funtzioa –lan indar merke eta sumisoa sortzea, Kapitalaren etekinak handitzeko– eta zeintzuk diren funtzio horiek gauzatzen dituzten figura autoritarioak –klase ertain pribilegiatuaren hezkuntza-lobbya–.

Ikasle-langilea, berriz, ez da hamarkada luzez elikatu den ikasle-subjektua izendatzeko modu bat, askok erredundante gisa hartu dutena eta beste askok antzu gisa, haientzat agerikoa baita ikaslea eta langilea ez direla gauza bera. Ikasle-langilea hezkuntza sistema kapitalistaren analisisa eta kritika posible egin duen subjektua da eta kritika horri izaera politikoa ematen diona. Izan ere, izendapen bat izan baino, estrategia bat dakar berekin ikasle-langileak; baina, are gehiago, gatazka bat azaleratzen du ikasle-langileak –sortzen dituen erreakzioak froga moduan–. Orain arte azpiratua izan den proletalgoaren emergentzia politikoa da hezkuntzaren esparruan.

Emergentzia hori haustura moduan gertatzen da: nazionalismoaren komunitate harmoniatsua kolpatzen du zuzenean. Eta hori posible da, hain zuzen ere, komunitate hori ez delako iradokitzen den bezain harmoniatsua eta bere batasuna proletalgoaren –ikasle eta langile aktiboak– zapalkuntza ekonomikoan, politikoan eta sinboliko-materialean oinarritzen delako.

Horregatik, ikasle-langilea ez da figura erretroriko bat gehiago; edo figura erretrorikoa eta gehiago da. Figura erretrorikoa da, erreakzioak sortzeko gaitasuna duelako, errealitate bati izena emanez. Baina, horretaz gain, errealitatea argitzen eta kontraesanak azaleratzen dituen figura bat da; bere existentzia eta aipamen hutsa jasangaitza da ‘zapalkuntza anitzen’ teoria posmodernoarekin ahoa betetzen zaion horrentzat eta horrekin bere burua puzten duenarentzat, ikasle-langileak zapalkuntza horien izaera kapitalista agerian uzten duelako eta, horrekin batera, hezkuntzaren esparruan erantzuleak seinalatzen dituelako. Eta asko ez dago prest bere funtzio objektiboa onartzeko, ezta kritikaren funtzioa ulertzeko ere, non eta ikuspegi kritikoa sustatzen duen zentroa izan beharko lukeen horretan.

***Kritika egiten duenak norbere
buruari ardura zehatzak
ezartzen dizkio, konpromiso bat
hartzen du eta bere praktikaren
mugak zehazten ditu, ondoren
haiekiko kontsekuente izateko***

Horiek jakin beharko lukete: kritika ez da kanpora begirako ariketa egitea. Ez da beste bati kritika egitea eta norberaren akatsei ez erreparatzea. Militantzia komunista eta konprometituarentzat, kritika ez da hori, inondik inora ere. Kritikak jarrrera jakin bat dakar; hau da, kritika ez da norbere ardurei uko egitea, ardura horiek zehaztea eta norbera horien aurrean kokatzea baizik. Kritika egiten duenak sarri kritika egin ohi dio aurretik izan den horri edo baden baina izateari utzi nahi dion horri, hau da, bere buruari; baina, bereziki, kritika egiten duenak norbere buruari ardura zehatzak ezartzen dizkio, konpromiso bat hartzen du eta bere praktikaren mugak zehazten ditu, ondoren haiekiko kontsekuente izateko.

Ikasle-langilea hori ere bada: ibilbide baten kritika da, estrategia baten aukerak ixten ditu estrategia berri bati ekiteko. ●

Testua — **Arteka**

Irudia — **Beñat Etxebarria**

**«Kalitatezkoa,
doakoa eta
unibertsala
izango den
proposamen
bat eraikitzen
hasi beharra
dago»**



Saioa Galarraga

Ikasle Abertzaleak-eko kidea



Saioa Galarraga Ikasle Abertzaleak antolakundeko kidearekin izan gara hezkuntza testuinguruaz solasean. Mahai gaineen jarri ditugu, besteak beste, LOMLOE, EAEko hezkuntza legearen aurreproiektua, hezkuntza sistemaren norabidea eta horretan guztian sozialdemokraziak jokutzen duen papera.



Azken boladan pil-pilean dagoen gaia da hezkuntza. EAEko hezkuntza legearen aurreproiektuak, hezkuntza erreformek... politikarien agendetan leku nabarmena hartzen dute. Zertara datoz erreforma prozesu horiek guztiak?

Hezkuntza gizarte antolaketarekiko aparteko gauza balitz bezala atzematen da. Horregatik, kosta egiten da erreforma horien guztien zentzua atzematea. Aldiz, hezkuntza gizar-tearen antolaketaren adar gisa, eta ez adar gisa soilik, baizik oinarritzko adar gisa ulertzen badugu, erreforma horiek erreforma orokorrago batean kokatzen direla ikusten dugu.

Erreforma sozial, politiko eta ekonomikoak, hain zuzen ere, Kapitalak bizi duen egoerari dagozkie, bizitza sozialeko beste hainbat aspektutan ikus dezakegun bezala: lan eta bizi baldintzen kaskartze orokortua, kontrol soziala handitzea... Beraz, zentzu berean, hezkuntza erreformak ere Kapitalaren beharrian berriei egokitutako proletariotza eredu hezteko funtzioa betetzen du, bai eta sektore horien errentagarritasuna mantentzeko funtzioa ere, krisi garaian sektore publikoan egiten diren murrizketa bortitzak medio. Hezkuntza ez da salbuespena. Geroz eta kostu gutxiagoren truke fruituak ematen jarraitzen duen tresna eraginkorra izateko moldatu beharra dauka.

Bigarren Hezkuntzan fokua jarritz, zein da hezkuntza sistemaren norabidea?

Hezkuntza sistemaren funtzio nagusienetako bat lan indarra prestatzea da. Prestakuntza hori heziketa prozesuaren ume-umetatik hasten da transmititzen, eta lan indarraren debaluazioaren aurrean, hezkuntza-ren prestakuntza planean aldaketak izaten dira, eta horrek, kualifikazio maila jaisteaz gain, bestelako funtzio batzuk indartzen ditu.



Zer funtzio indartzen ditu zehazki?

Gaur-gaurkoz, hiru puntu nagusitan laburtu ahalko genuke gertatzen ari dena. Lehenik, jakintzaren transmisioaren garrantzia gutxitzen ari da. Heziketa prozesua edukiz hustuta dagoela diogunean horri egiten diogu erreferentzia. Horrek zuzen-zuzenean ikasleriaren idiotizazio prozesua eragiten du; ikasleak geroz eta baliabide gutxiago ditu pentsamendu kritikoa garatzeko eta inposatzen zaion moral lehiakor eta indibidualisten aurrean eta ideologizazio kapitalistaren aurrean kritikotasunez jarduteko. Egun-go hezkuntza sistemak ezgaitua den subjektu hori sortzeko bitartekoak jartzen ditu, guztiz kontrakoa egiten duela saltzen duen arren.

Bigarrenik, ikastetxeak geroz eta gehiago betetzen du diziplinamendu zentroaren funtzioa. Hezkuntza edukiz husten ari den bitartean, «bestelako kompetentzia» batzuetan oinarritutako pedagogia saldu digute, eta, horrela, heziketa prozesua are eta modu agerikoagoan ari da bilakatzen inguratzen gaituen errealitatearen aurrean jarduteko era inposatzeko prozesu.

Hirugarrenik, eta, azkenik, prozesuaren izaera baztertzaila aipatu nahiko nuke. Izan ere, aldagetak eta horien ondorioak ez dute forma bera hartzen eta ez dira une berean gertatzen ikasleria guztiarengan. Aldaketen aurrean ikasle zaurgarriena bitarteko ekonomiko gutxien dituen da. Hezkuntza sistemak, ikasleria gaitasunez hornitzeko interesa galtzen duen unean, etorkizunean subjektu ez-produktibo izango den hori bera izango da gaitasun horietatik at uzten den lehena. Hori modu zuzen eta zeharkakoan egiten da. Alde batetik, hezkuntzaren kostua handitzen bada, geroz eta gutxiagoren eskutan gelditzen den tresna bilakatzen da hezkuntza, baina,

bestalde, heziketa prozesuak geroz eta gutxiago asetzen ditu proletalgoaren beharrak. Geroz eta lotura eskasagoa dago heziketa prozesuaren eta etorkizun laboral ez-prekarizatu baten artean, eta familia txiroenak ez daukate ziurgabetasun hori asumitzerik. Horrek ikasketa prozesua ahal bezain lasterren bazter uztera eta are baldintza kaskarragoetan lanean hastera kondenatzen ditu. Horrela, gaitasunik gabeko subjektuen geruza zabal bat eratzen da, zeina isolamendu soziale-ra kondenatuta egongo den.

***Ikasleak geroz
eta baliabide
gutxiago ditu
pentsamendu
kritikoa
garatzeko eta
inposatzen
zaion moral
lehiakor eta
indibidualisten
aurrean eta
ideologizazio
kapitalistaren
aurrean
kritikotasunez
jarduteko***




*Gaitasunik
gabeko
subjektuen
geruza zabal
bat eratzen da,
zeina isolamendu
sozialera
kondenatuta
egongo den*



Heziguneak diziplinamendu zentro huts bilakatzeraz bidean urratsak eman direla diozu. Zer forma zehatzetan hautematen da hori?

Azken urteotan nabarmen ugaritu dira arau arbitrarioak, neurri diziplinarioak eta ikasleria bortxaz kontrolatzeko funtzioa duten plataforma digitalak, besteak beste. Askatasunik oinarritzkoenak ere gogor urratzen dira; ikasleak egiten duen mugimendu oro justifikatu beharra dauka, komunera joatea ere kontrolatuta baitago. Neurri horien muturreko adierazpena da kontrol plataforma digitalena; tresna horrek ikasleria guztiz bigarren plano batean uzten eta bere deshumanizazioan sakontzen du. Ikasleari ere kendu egiten zaio haren jarreraren gaineko zeresan guztia, gurasoengan delegatzen baita dena. Oinarritzko askatasunak urratzen dira, eta zer esango dugu askatasun politikoez: ia-ia ez direla existitu ere egiten. Horren adierazle da, esaterako, zenbat oztopo dituzten ikasleek greba eta lanuzte akademikoak eskatzeko, zenbat kaleratze dauden jardun politikoagatik, zenbat seinalamendu, mehatxu akademiko, etab.

*Azken urteotan
nabarmen ugaritu dira
arau arbitrarioak,
neurri diziplinarioak
eta ikasleria bortxaz
kontrolatzeko funtzioa
duten plataforma
digitalak*





LOMLOE eta EAEko Hezkuntza Legearen aurreproiektuaz ari zarete, hezkuntza sistemaren norabidea kristalizatzen dutela diozue. Zer formatan jazotzen da hori?

LOMLOEri dagokionez, curriculumean eta ebaluazioan proposatzen diren aldaketak ekarri nahiko nituzke. Edukiari lotuta, irakasgai berriak sortu dira, esaterako, «Digitalizazioa», eta beste batzuk desplazatu, hala nola Filosofia. Irakasgaiak urruneko modalitatean jasotzeko aukera zabaldu da, eta hala, are gehiago indartu dira bitarteko gehien dituzten ikastetxeak, eta, aldiz, egoera zaurgarrian gelditu dira zentro txikiak. Hezkuntza sistemak proposatzen duen heziketa prozesuak dituen arrakalak ikasleriak eta irakasleek bete ditzaten exijitzen da; horren adibide dira errefortzu planak (plan horretan, irakasgaiak gainditzen ez dituzten ikasleak errefortzu klaseetara joatera behartuta daude. Irakasleek, aldiz, lanaldi zatitua egin behar dute halaberharrez; izan ere, klaseok gehien-gehienean arratsalde izaten dira.). Ebaluazio irizpideak lausotzeak eta ezohiko azterketak desagertzeak, besteak beste, ebaluazioa guztiz subjektiboa izatea eragiten du, eta, ondorioz, ikaslerik txiroenak ahal bezain pronto kanporatzen dituzte hezkuntza prozesutik. «Batxilergo orokorraren» moduko proposamenak hauspotzen dira, ikasleria zuzenean lan mundura txertatzeko sortuak (batxilergo orokorra egin duen ikasle batek ez du selektibitatea egiteko aukerarik izango).

EAEko legea LOMLOEren kalko bat litzateke. Curriculumean azaleko aldaketak baino ez ditu proposatzen, eta, horrez gain, azpimarratzekoa da itunpeko ikastetxeen alde egiten duela apustu, hau da, segregazioan are gehiago sakontzen duela.

EAEko Hezkuntza Legearen aurreproiektuak ezinegon handia piztu hezkuntza komunitatean. Zein da horren aurrean egiten duzuen irakurketa?

Azken hamarkadetan hezkuntza sisteman egin diren egiturazko aldaketa guztiak lurreratzean –langile klasea zuzen-zuzenean kolpatzen duten erreforma prozesuak izan dira–, indar korrelazioa ez da aldaketak borrokatu izan dituztenen alde egon. Horrekin, agerian gelditu da besteak beste hezkuntza komunitatearen ezintasuna, eta irekita utzi dira hezkuntza transformatzeko ateak. Bestela esanda, indar politiko antagoniko baten faltan, edo haren gaitasunaren mugak medio, hezkuntza erreformek eta horiek asimilatu izanak gogor kolpatu dute hezkuntza komunitatea. Gaur artikulatu gabeko hezkuntza komunitate baten irudia dugu, despolitizaturik eta indar antagoniko erreala izateko ez gaitasunik ezta diskurtsorik ere ez duena. Bada, ordea, lege erreforma berriek eta koiunturak bultzatuta, azken urteotan apalago egon den sektore bat piztea ekarri duen abagunerik.

Ezarritako aldaketen aurrean desadostasuna eta kaleak hartzeko borondatea erakutsi dezakeen hezkuntza komunitateaz ari naiz. Hala ere, aurrez aipatutako despolitizazioari eta estrategia faltari ondorengoa gehitu behar zaio: «inoizko gobernu aurrerakoienak» proposatutako lege ustez progresistez ari garela. Oposizioa artikulatzea zailtzen du horrek. Horren adibide argia daukagu EAEn: lau alderdi politikoen elkarlanaren ostean sortutako legea blindatuta gelditzen da. Bide horretan aipatu duzuen Hezkuntza Legearen aurreproiektuan eta horren aurretik egindako hezkuntza hitzarmenean prozesuak berak hartu du garrantzia, eta ez edukiak. Murritzketen mehatxu saihestezinaren aurrean, erreformek hezkuntza baldintza kaskarragoetan uztea besterik ezin zezaketen ekarri. Baldintzak kaskartze horrek, baina, zuzenean egiten dio kalte hezkuntza komunitateari. Horregatik hartu du zentraltasuna prozesu legegileak eta ez legearen edukiak edo erreformak ekar lezakeenak: hezkuntza komunitatea asaldatu ez dadin. Eta horrek zera dakar, hezkuntza sistema kaltetuko duen erreforma asimilatzea hitzarmen historikoaren Troiako zaldiaren barruan.

Sindikatuaren eta alderdi politikoen arteko joko horrek prozesua zer garrantzitsua den azpimarratzen badu ere (historikotzat jotzen dute), ez du bake soziala mantentzea helburu bakar. Alderdi politiko ezberdinek proletariotza kaltetzen duten neurriak ezarri eta onartzen dituzten bitartean, itxurakeriaz aritzen dira, beren buruak zuritzeko. Horrek agerian uzten ditu sozialdemokraziaren programak langileen interesak defendatzeko duen ezintasuna.





ELKARRIZKETA — «Kalitatezkoa, doakoa eta unibertsala izango den proposamen bat eraikitzen hasi beharra dago»





***Gaur artikulatu gabeko
hezkuntza komunitate
baten irudia dugu,
despolitizatua eta indar
antagoniko erreala
izateko ez gaitasunik
ezta diskurtsorik
ere ez duena***

***Egungo hezkuntza
sistema gizartea
bikaintasunera
eramango
duen tresna
izan daitekeela
diote, instituzio
neutro bat***



Sozialdemokraziaren politiken mugak aipatu dituzu. Zeintzuk dira muga horiek?

Hezkuntza sistema haatemateko edo ulertzeko beste modu bat dute abiapuntu. Egungo hezkuntza sistema gizartea bikaintasunera eramango duen tresna izan daitekeela diote, instituzio neutro bat. Alabaina, arrakalarik baduela ere badiote alderdi ezkerkoiek, josi beharreko zuloak dituela, baina behin horiek konponduz gero, etorkizun hobearekin erakitze tresna bihurtuko dela hezkuntza sistema. Eta helburu horiekin aurkeztzen dituzte beren politikak, hezkuntza sistemak dituen akatsak konpondu eta hura hobetzeko helburuarekin.

Ez da bikaintasuna, ordea, gaur egungo hezkuntza sistemak dakarrena; kontrara, gero eta pobreak den eta izango den bizi eredurantzko egokitzapen bat da, ikasleak etorkizuneko bizi baldintzak onartzeko eta horien eskakizunetara egokitzeko heztea beste helbururik ez duena. Ez da etorkizun hobe baten motore.

Horrez gain, krisi garaiotan, inbertsio publikoa egunetik egunera murrizten ari den honetan, hezkuntza ez dago hortik salbu. Ez da instituzio isolatu bat, eta murrizketen ondorioz, oro har gero eta bitarteko gutxiago

bideratzen dira hezkuntza sistema, eta sozialdemokraziak gero eta aspirazio txikiagoak ditu hezkuntza indartzeko: ez da oihalik gelditzen ezta adabakitarako ere. Hezkuntza sistema kaskartzen egotearen ondorioak agerikoak dira: hezkuntzarako eskubideak unibertsala izateari uzten dio, ikastetxeak ixten ari dira, edo segregazioa gertatzen da, adibidez.

Eztabaida ezin da, beraz, egungo hezkuntza ereduaren modalitate desberdinen artean kokatu. Hezkuntza ez du hezkuntza sistemaren aldaketa batek edo besteak askatuko betetzen dituen funtzioetatik, ezta etorkizun hobe baten eraikuntzarako tresna bihurtuko ere. Egungo ereduaren gaitortasunak duen proposamen bat eraikitzen hasi beharra dago, hezkuntza sistemak dituen kontraesanak gaitortuko dituen proposamen bat, kalitatezkoa, doakoa eta unibertsala izango den proposamen bat. Horretarako, ezinbestekoa da sozialdemokraziaren iruzurra gaitortu eta sindikatuen agenda oportunistari aurre egingo dion hezkuntza komunitate bat eraikitzea, gizartearen benetako motore izango den hezkuntza sistema eraikitzea aukera errealtzat izango duena. ●

Ezinbestekoa da sozialdemokraziaren iruzurra gaitortu eta sindikatuen agenda oportunistari aurre egingo dion hezkuntza komunitate bat eraikitzea, gizartearen benetako motore izango den hezkuntza sistema eraikitzea aukera errealtzat izango duena

KOLABORAZIOA

Hezkuntzaren izaera inposatzailea agerian

6
2

Testua — **Ibai Berezibar**

Irudia — **Saioa Contreras**



Badaramagu denbora bat autoritarismoaren gorakadaz hitz egiten; estatu aparatuen burokratizazioaz, gizartearen idiotizazioaz edota langile masa zabalen diziplinamendu prozesuaz. Proletalgoaren gaineko dominazioa betikotzen duten joera horien guztien areagotze argia bizitzen ari gara, Kapitalaren ofentsiba deritzoguna. Hala ere, testuinguru ekonomiko zein politikoaren arabera aldakorrak izan dira burgesiaren erasook, eta esparru bakoitzean momentu nahiz forma konketuak hartu dituzte; pandemiaren aitzakiapean gauzatutako eskubide zein askatasunen urraketak, okupazioaren aurkako neurriak gogortzeko egindako saiakerak edota hezkuntzaren modernizazioan sakontzera datozen erreformak, ondorengo lerroetan aipatuko ditugunak.

Kolaborazio honetan hezkuntzaren alorraz jardungo dugu, eta zehatzagoak izanda, bere funtzio edo izaera inposatzaileaz, sektore proletarioen bazterketa bermatu eta subjektibitate otzan zein despolitizatua eraikitzeaz arduratzen dena. Alde batetik, barne funtzionamendu konplexu, guztiz elitista eta blokeatzaileaz hitz egingo da; bestetik, hezkuntzaren gaineko erabakien burokratizazioa, burgesiaren ofentsiba gauzatzeko beharrezkoa izan den alderdi politiko nagusien ituna eta ondorengo EAEko Hezkuntza Legea aipatuko dira. Hori guztia erreformen aplikazio testuinguru batean kokatuko da, eta, horren bidez, frogatzen saiatuko gara hezkuntzaren esparruan sarreran aipatu ditugun joerak areagotzen ari direla.

Jakina denez, transformazio prozesu bete-betean murgilduta daude ikastetxe nahiz zentro gehienak, metodologia berriei –batxilergo orokorra, konpetentziakako ebaluazioa, errefortzu plana...–, eduki aldaketei –gaitegien hustuketa nabarmena, ikasgaien aukera murrizketak, online aukeraren hedatzea...–, mila-ka proiekturi –hedatze proiektua, Euneiz unibertsitatea, Lanbide Heziketako plana...– eta ezin konta ahala plan berritzaileri aurre eginez. Badirudi agintari politikoen *brainstorming* baten ondorioen aurrean gaudela, zeintzuek hezkuntza hartzen ari den norabidea hitz politez apaindu besterik ez duten egingo. Izan ere, trantsizio fase moduan izendatu nahi izan dute ikasturte hau alderdi politiko zein sindikatu nagusiek, trantsizio hitzari zantzu positibo eta aurrerakoia emanez, noski. Errealitatean aldaketok ez dakarte kalitatezko hezkuntza baterako aurrerapausorik, eta zirku parlamentario honek dirauen bitartean, hezkuntzaren desgitearen azelerazioa ari gara jasaten.

Ikasturte hasieratik mahai gainean jarri dugu hezkuntzaren norabidea heziketaren desgiteak, segregazioak eta hezkuntzaren burokratizazioak nahiz inposizioak ezaugarritzen dutela. Kapitala metaketa ziklo berri baterako berrantolatu beharrrak baldintza produktibo berrietara egokituko den subjektibitatea, etorkizuneko langile klasea, moldekatzea dakar, eta, hori dela medio, eta hezkuntzak auzi honetan betetzen duen eginkizuna aintzat hartuta, langabeziara, lanaren teknifikaziora eta abarretara egokituko diren ikasleak sortzera begirako eraldaketa bizitzen ari dira ikastetxeak. Trantsizioa, beraz, diziplinamendurako zentroak eraikitzen bideratuta dagoela esango nuke, eta argi dago burgesiaren alderdiek proletalgora hezkuntzatik kanporatzea adostu dutela.

Formakuntzaren debaluazio bat izaten ari den bitartean –gaitegiak edukiz hustuz, diziplinak nahasiz, aukerako irakasgai kopurua murriztuz...–, kritikarako tresnak kentzen ari dira –filosofia degradatuz, besteak beste– eta konpetentziak ebaluatu –konpetentzia digitala, ekintzailatza...– zein balore zibiko jakin batzuen baitan hezten gaituzte. Lan indar merke eta ez kualifikatua produzitzeaz gain, atomizatua, konformista eta esanekoa izango den ikasle subjektu eredu bat ekoizteko fabrika bilakatu da hezkuntza, eta egoera zaurgarrienean dauden ikasleak derrigorrezko ikasketak ahal bezain pronto amaitu eta lan mundura txertatzen direla bermatzeaz arduratzen da –errefortzu plan berriak zein ezohiko azterketak desagertzeak nahiko argi uzten du zer ari naizen esaten–. Bide horretan,

Badirudi agintari politikoen *brainstorming* baten ondorioen aurrean gaudela, zeintzuek hezkuntza hartzen ari den norabidea hitz politez apaindu besterik ez duten egingo

hezkuntza administrazioaren egituraketa da horren guztiaren bermeetako bat, eta ez dago irakasle zein gurasoen borondate onik hezkuntzaren dekadentziari buelta emango dionik.

Kapitalismoaren garapenarekin batera harreman sozial kapitalisten konplexutasuna areagotu izan da, Estatua ere erritmo berdinen baitan antolatzena behartuz. Zentzu horri jarraiki uler genezake egungo estatu burgesaren barne egitura korapilatsua, ez soilik organo tradizionalak –ministerioak, adibidez– kuantitatiboki handitu direlako, hainbat eredu berri sortu direlako baizik: autonomia maila ezberdineko administraziorik, eskubide pribatuak dituzten estatu enpresak (itunpekoak), larrialdietarako sortu eta desegiten diren instituzioak, etab. Hezkuntzaren alorra ere antzerik antolatzen da: estatu mailako administrazio orokorra dago; Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa; autonomia gradu desberdineko autonomia erkidegoak; hezkuntza administrazio lokalak, erkidego bakoitzeko hezkuntza sailaz arduratzen diren kontseilu, ikuskari eta abarrek osatuak; eta, azkenik, heziketa zentroak egongo lirarteke.

Atal horien guztien arteko koordinazioa oso modu burokratikoan egiten da, lege eta irizpideen gaineko informazio zein gardentasun falta nabarmena izan ohi da, eta ikastetxeetan aldaketak berehalakoan martxan jar ditzaten inposatzen da. Gainera, hezkuntza teknifikatzen ari dira, sentsazio orokortua da irakasten baino denbora gehiago igarotzen dela tramitazio hutsean, besteak beste azterketa kopurua handitu egin delako eta ebaluazio irizpideak aldatu egin direlako. LOMLOEk ere horretan sakontzen duela agerikoa da, hezkuntza administrazioaren konplexutasunari aurre egin beharrak bultzatuta ikasturte hasiera honetan zentroek darabilten noraeza ikusi besterik ez dago; legearen aplikazio prozesua erabat inposatzailea izaten ari den seinale argia.

Estatu aparatatu nahiz instituzioen konplexutasunaren handitzeak elite batek hartutako erabakien blindatzea dakar, eta horrek, ikusi bezala, desadostasunak ezerezera eraman eta organoen barrenekiko oposizioa aurrera eramatea eragotziko du. Bitartean, eliteak edo burokrazia politikoak –alderdi politikoek, sindikatu nagusiek, patronalak...– Estatua finantzatzen duen oligarkiaren interesen arabera prozesuak diseinatzen nahiz martxan jartzen jarraitzen du: Googlerekin sinatutako akordioaren ondorengo digitalizazio prozesua, enpresen premien ondorio den Lanbide Heziketako Plana edota berehala xehatuko dudana EAEko Hezkuntza Legea.

LOMLOEk ere horretan sakontzen duela agerikoa da, hezkuntza administrazioaren konplexutasunari aurre egin beharrak bultzatuta ikasturte hasiera honetan zentroek darabilten noraeza ikusi besterik ez dago; legearen aplikazio prozesua erabat inposatzailea izaten ari den seinale argia





*Hezkuntzak autonomia
edo independentzia
maila bat baduela
kontatzen den garaiotan
garrantzizkoa da
kapitalismoaren beste
aurpegi bat baino ez
dela aldarrikatzea*



Burgesiak hezkuntzaren gainean duen kontrolaren deskribapena baino ez da esaten ari naizena, eta hezkuntzak autonomia edo independentzia maila bat baduela uste den garaiotan garrantzizkoa da kapitalismoaren beste aurpegi bat baino ez dela aldarrikatzea. Argi geratu da barne funtzionamenduak demokratikotik gutxi duela, eta Kapitalaren behar produktiboak asetzen dituen nahiz burgesia-
ren interesen baitan funtzionatzen duen instituzio bat baino ez dela egun.

Hezkuntzaren funtzio inposatzailean sakontzen jarraitzeko heziguneetako errealitatea mahaigaineratzea komeni da, izaera hori gardenen ikusten den espazioa da. Diziplinamendurako zentro bilakatzeko prozesu horretan agerian gelditu da politika independenterik gabeko espazio bihurtu nahi dituztela ikastetxeak, obedienez hezitako ikasleak produzituz eta alternatibarako aukera oro blokeatuz. Horretarako, eztabaidarako markoak kendu edo euren kasa antolatzen diren ikasleak zigortzen dira.


Bide horretan, gizarteko alor guztien antzera, ikastetxeetan ere autoritarismoaren gorakada agerikoa da; maiz, irakasle eta zuzendaritzen figuretan haragitzen du, baina egiaz egitura oso batek ahalbidetzen du. Kontrol sozialerako tresnak –Inika plataforma, kamerak...–, eskubide zein askatasunen urraketak –grebarena, atsedeen tarteena...– edota etengabeko saiakera infantilizatzaileak nahiz despolitizatzaileak dira horren guztiaren bermea, besteak beste. Ikasleak ez direla subjektu politiko modura onartuak agerikoa da, baina joera horiek muturrera eramanez gero ikasleari gizatasuna kentzen zaiola ere esan dezakegu: hitza kentzen zaio, modu automatiko zein mekanikoan funtzionatzeko hezten da, edukiaren memorizazioan trebatzen da, atsedena gutxitzen zaio eta denbora libre falta nabarmena da. Hori guztia gutxi ez eta, esan berri duan modura, lan politikoa egite hutsa ere zigortua izaten da sarri.

Bestalde, erreforma berrien eskutik ikastetxeak enpresa egituren analogoak izango direla dirudi. Zentro bakoitzeko zuzendaritzei erabakimen eta autonomia handiagoa emango zaie eskola barruko nondik norakoak inolako kontrol demokratikorik gabe erabaki ditzaten, eta zuzendaritzaren zein enpresaburuaren rola berbera izango dela dirudi. Erabakien deszentralizazioaren aitzakiapean –zentzu positiboan– justifikatzen duten arren, zuzendaritzaren autoritarismoaren legitimazioa ekar dezake.

Ikasleak ez direla subjektu politiko modura onartuak agerikoa da, baina joera horiek muturrera eramanez gero ikasleari gizatasuna kentzen zaiola ere esan dezakegu

Aipamen txiki bat egite aldera, eta unibertsitate esparruan hainbeste sartuko ez naizen arren, prozesu beraren parte den momentutik, esango dudana esparru horretan ere aplikatu daiteke hein handi batean. Autoritatearen gehiegikeriek, esaterako, errepresio politikoaren forma hartu dute azkenaldian; gogoratu besterik ez dauzkagu joan den ikasturteko atxiloketak, isunak edota campusetako presentzia polizial itogarria. Dena dela, unibertsitateen izaera inposatzaileaz zehatzago hitz egiteko ere izango dut aukera gehiago. Horregatik, eta amaitzen joateko, EAEko Hezkuntza Legearen prozesuarekin sartuko naiz, etorriko denaren aurrekari garrantzitsua dela baiteritzot.

Badira hilabete batzuk EAEko lege propio baten ustezko beharra zela-eta EAEko alderdi politiko nagusiek eztabaida prozesu bat abiatu zutela, jada martxan zen LOMLOErikiko modu paraleloan eraikiko zen dekretua helburu. Hasieran oihartzuna izan bazuen ere, inpaktua lau aldetako itun gauzatu zenean heldu zen; izan ere, PSOE, EAJ, Elkarrekin Podemos-IU eta EH Bilduren adostasuna ia erabatekoa izan zen. Lehen egunetatik edukiaren gaineko desinformazioa nahiz gardentasun falta sistemati-
koak izan ziren, eta isilarazi eta zokoratu egin hezkuntza komunitateko hainbat sektoreren kezak.



Zenbait pertsona publikoki legearen aurka posizionatu arren, legearen zirriborroa argitaratu ostean ekarpenetarako eta eztabaidarako 40 eguneko prozesu formal ireki bat abiatu izanak eta modu horretan inoizko hitzarmen demokratikoena bailitzan saldu izanak, hezkuntza komunitateak hasieran izan zezakeena baino kontraktasun txikiagoa adieraztea ekarri du. Izan ere, ekarpenok modu sinbolikoan baino kontuan hartuko ez dituzten arren, prozesua bera legitimatzeko balio izan die parte-hartzearen zirku horrek, zenbait sektore txo-txongilo modura erabili dituzte, eta, aldiz, oposizioa baliogabetzeko balio izan die; beraz, eta diotenaren kontrara, legearen garapena erabat antidemokratikoa izan dela agerikoa da. Aintzat hartzekoa izango da behin epea amaituta nahiz legeak bere horretan jarraitzen duela ikusita irekiko den joko zelai politikoa.

Beste alde batetik, lau alderdi politikoen akordioaz hitz egin behar da, hezkuntzaren transformazio fase honetan, erreformen bitartez, heziguneetako proletarizazio prozesua arautzeko adostasunera iritsi baitira pluraltasunaren banderapean. Hasieratik hezkuntzari aparteko izaera bat esleitu diote, eta Kapitalaren gainontzeko esparruetatik isolatzen saiatu dira, gizartearen motorra izan daitekeela esan eta hezkuntzaren alorrean akordio batera heltzea derrigorrezkoa dela saldu nahian –zirriborroaren lehen paragrafoa irakurri besterik ez dago hori ikusteko–. Hala ere, itun horrek ez gaitu harritu behar, politikari parlamentario horien adostasuna erabatekoa baita interesak berberak diren momentutik. Hitzarmenaren pluraltasuna, beraz, burgesiaren alderdiak ezarritako marra gorrien araberakoa izango da: hezkuntzaren gastua murriztea, jada produktiboa ez den ikasle geruza hezkuntzatik kanporatzea edota diziplinamenduan sakontzea.

**Honako fartsa izango da
hemendik aurrera jasan
beharko duguna: ofentsiba
kapitalista, trantsizio
demokratikoz mozorrotuta**





**Erabaki horrek
segregazioan eta
pribatizazioan
sakondu baino ez
du egiten, eskubide
pribatuak dituzten
eskolei laguntzak
handitzen baitizkie.
Publifikazioaren
izenean klase
ertaineko seme-
alabentzako
hezkuntza eskaintza
bermatzen da**

***Aipatutako hori guztia
da gainera datorkiguna.
Hezkuntza gutxi batzuen
pribilegio izatera
bidean blindatuko
da, eta gainontzekoak
miseriarekin konformatu
beharko dugu. Aldaketaz
aldaketa inposatuko
zaigu, eta prozesu parte-
hartzaileen iruzurrarekin
estaliko digute. Eta
konturatzera, enpresek
kudeatutako zentroetan
ikasten amaituko dugu***

Honako fartsa izango da hemendik aurrera jasan beharko duguna: ofentsiba kapitalista, trantsizio demokratikoz mozorrotuta. Edonola ere, sar gaitezen EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroan.

Hezkuntza modernizatzeko legeak duen potentzialtasuna edukian baino askoz gehiago datza prozesuan, hutsala baita zirriborroak dioena. Ezer baino lehen, garrantzi berezia ematen dio doakotasunari, eta, hori dela tarteko hezkuntza administrazioaren menpe dauden itunpeko eskoletan ere tasarik ez kobratzeko apustua egin da, diru partidak berdintzeko nahiz matrikulazio mailak erregulatzeko. Ikusi egin beharko da tasena betetzen ote den; dena dela, erabaki horrek segregazioan eta pribatizazioan sakondu baino ez du egiten, eskubide pribatuak dituzten eskolei laguntzak handitzen baitizkie. Publikazioaren izenean klase ertaineko seme-alabentzako hezkuntza eskaintza bermatzen da, eta jada baztertzaila den baina irisgarriena ere baden eredu dekadente batean (publikoan) inbertitu beharrean, diru partidak mantentzearen alde egiten da apustu, eta horrek kalitate eskaseko hezkuntza eskaintzea eta sektore proletarizatuenak bertatik kanporatzea dakar. Doakotasuna ez da taseen ezabapenarekin soilik bermatzen, ondasunen produkzio eta banaketaren eredu aldaketa batekin baizik, sozialismoaren eraikuntzarekin.

Euskarari, beste alde batetik, ez dio mesederik egiten lege horrek, euskalduntzea xede moduan duen arren, merkatuaren beharretara azpiraturik baitago. Euskarazko orduak murriztu, eta gero eta debalatuago dagoen edota ia sinbolikoa den hizkuntza titulazioaren sisteman jartzen du itxaropena: derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitzean ikasle orok euskarazko B2 maila izango duela zin egiten digute euskarazko orduak gutxitzea justifikatzeko.

Dena dela, aurretiaz aipatu moduan, lege horretan interesgarriena ez da dioenari erreparatzea, esaten ez duenaz ohartzea baizik. Izan ere, oinarritzko zerbitzuen murrizketak, eskola txikien zailtasunak, mailen arazoa, edukia behar bezala transmititzeko ezintasuna eta abar luze bat aipatu ere ez ditu egiten. Gainera, LOMLOEren alternatiba gisara erabat baliogabea ere bada, ez baitauka enpresen esku-hartzean, formakuntzaren debaluzioan edota ikastetxeen burokratizazioan sakonduko duen lege horri kontrajartzen zaion elementurik.

Aipatutako hori guztia da gainera datorkiguna. Hezkuntza gutxi batzuen pribilegio izatera bidean blindatuko da, eta gainontzekook miseriarekin konformatu beharko dugu. Aldaketaz aldaketa inposatuko zaigu, eta prozesu parte-hartzaileen iruzurrarekin estaliko digute. Eta konturatzerako, enpresek kudeatutako zentroetan ikasten amaituko dugu.

Ikasturte hau eta datozenak erabakigarriak izango dira erreforma prozesu honi dagokionez, beraz, beharrezkoa izango da lege horiei guztiei ezetz esan eta proletalgoaren aurkakoa den aldaketa konkretu oro borrokatzea; batasunez, elkartasunez eta ikasle autodefentsaz. Ofentsiba honetan agerian gelditu den hezkuntzaren izaera inposatzailearen aurrean, eta ikasle langileon defentsan, ikasleak subjektu politiko gisara aitortuak izateko aurrerapausoak eman beharko dira, interes unibertsalekoa izango den doako nahiz kalitatezko hezkuntza eredu eraikitze bidean. ●

EUSKARA
BAZTERTZEN
DUELAKO...

UPV

espainola

Testua — **Mattin Aranburu**
eta Naia Gurrutxaga

Hamarkada bat heziguneetan: nazio askapenetik klase independentziarako bidea

A large crowd of young people, mostly students, are gathered in a city street for a protest. They are holding a large white banner with Basque and German text. The background shows a multi-story building with many windows. The entire image has a blue tint.

**HEZKUNTZA
SOZIALISTA
ERAIKI**

— Ikasle Abertzaleak

Zalantzarik gabe, aldaketa urteak izan dira azkenekoak Euskal Herriko gazte panorama politikoan. Espazio zabal horren baitako zati bat izan da ikasle mugimendua, zurrunbiloaren bihotzean egon dena uneoro, zetorrenaren aieru sarri. Artikuluan aldaketa-garai honen kronika bat egiten saiatuko gara, gertaera zehatzetara hurbildu bai, baina mahai-gainean izan diren eztabaida eta joeren erreskari erreparatuta, egungo tesi politikoetara ekarriko gaituen hari bat argitu nahian.



Kronika bat izango da ondorengoia. Gertakarien kontaketa eta praktika politikoen analisia izan nahi du, biak elkar-harremanean. Kontakizuna egituratzeko, eskema bati jarraituko diogu: azkeneko hamarkada, Euskal Herriko ikasle mugimenduaren baitan, hiru epetan bereizi dugu Ikasle Abertzaleak (IA) eta ikasle mugimenduari dagokionez. Ondorengoak dira:

- Lehenengo epea, ikasle mugimendua, zetorrenari jarraia, Ezker Abertzaleari eskutik emanda zihoan garaia da, Hamarkadaren lehen urteak hartu zituen eta Iaren politika aipatutako mugimenduaren koordinatuetan kokatzen zen.

- Bada bigarren epe bat, bere berezitasunengatik hamarkada hasiera eta bukaerakoetatik bereizi daitekeena eta batetik besterako trantsizioa egiten duena. Ezker Abertzaletik urrundu eta klase independentziaren aldeko tesietara hurbiltzen hasteko garaia da.

- Azkena, hamarkada amaierakoa, IA eta ikasle mugimenduaren gehiengo handiak jaioberria den (eta hein batean erditu duen) Mugimendu Sozialistaren baitan antolakuntza komunistaren zeregina bere egiten duen garaia da.

Gertaerak horren eskema laburretan kokatzeak, nola ez, kontakizunak sinplekeriaz herren egiteko arriskua du. Datoren lerroak, beraz, horren jakitun irakurri ditzala aldizkaria esku artean duenak.



TESTUINGURUA HAMARKADA HASIERAN

Ezin da campus eta institutuetak egoera politikoa azaldu gutxienez testuinguru orokorra, koiuntura ekonomikoa eta hamarkada hasierako ikasle mugimenduaren egoera aipatu gabe. Motzean:

- Koiuntura ekonomikoari dagokionez, krisi kapitalista betean zen mundua. Horrek, mendebaldeko beste hainbat herrialdetan bezalaxe Euskal Herrian ere, langile aristokraziaren esparru zabal baten proletarizazioa eta belaunaldien arteko haustura ekonomikoaren forma hartu zuen. Esan daiteke lehen urte hauetan proletarizazio prozesua hastapenean zela.

- Euskal Herrian, Ezker Abertzalea instituzionalizatu zen eta egitura militanteak desegin ziren urteak izan ziren. 2011n ETAk behin betiko su-etena iragarri zuen, EH Bilduk udal- eta foru-hauteskundeetan emaitza onak lortu zituen (Gipuzkoako Foru Aldundian eta Donostiako Udalean irabazi zuen, adibidez) eta presoek etxeratzerantz bidean ziruditen. Antza, errepresioak kolpatutako hamarkaden ondoren, arantzarik gabeko arrosa topatu zuela sentitu zuen batek baino gehiagok: legalitatean eta demokrazia burgesararen arauen baitan egingo zen independentzia eta sozialismorako bidea.

- Bukatzeko, eta campusetara etorrita, Bolonia planaren aurkako borroken porrotaren biharamuna izan zen 2010eko hamarkada hasiera. Izan ere, 2008 inguruan ikasle mugimenduaren protestak gorabehera, EHUK plana onartu eta aplikatu zuenetik beherakada eta ahulezia urteak izan ziren. Are gehiago, campus batzuetan militantzia sareak ia guztiz desagertu ziren.



Bolonia planaren aurkako borroken porrotaren biharamuna izan zen 2010eko hamarkada hasiera. Izan ere, 2008 inguruan ikasle mugimenduaren protestak gorabehera, EHUK plana onartu eta aplikatu zuenetik beherakada eta ahulezia urteak izan ziren. Are gehiago, campus batzuetan militantzia sareak ia guztiz desagertu ziren

IKASLE ABERTZALEAK, EZKER ABERTZALEAREN ADARRA

Artikulu honen helburua ikasle mugimendua non egon den eta zertan ari den ezagutzen saiatzea da, egun non dagoen eta zertan ari den argitzeko. Alegia, garaian garaiko dinamika politikoari eta honen bilakaerari erreparatzea. Dinamika hori ulertzeko lagungarria da praktika politikoa aztertzea, militanteek beraiek egindako kritika eta gaindipena baitira aurrera egiteko motorretako bat. Beraz, ondorengo garai oro ulertzeko baliagarria da aurreko garaian topatutako muga eta ezintasunetan paratzea, horiek gainditu asmoz egindakoa izaten baita askotan batetik besterako bidea.

Hasteko eta batez ere, ikasle antolakundeak betetzen zuen funtzio politikoa aipatuko dugu: asmoak asmo eta usteak uste, praktika batek ondorio bat dakar. Elkar-eraginean, eta ahalik eta gardenen ikusten saiatu behar gara bien arteko lotura. Bada, urte horietan Ikasle Abertzalearen zeregina, ezbairik gabe, campus eta institutueta Ezker Abertzalearen adarra izatea zen. Gazte antolakundeko militantzia desdoblatua eta antolakundeen arteko loturak zirela medio, baina baita inertzia eta giro politikoak eraginda ere, esan daiteke Ezker Abertzalea elikatzea zela I Aren funtzioa.

Zeregin hori, gure ustez, hiru erata- ra betetzen zuen nagusiki:

1.- Ezker Abertzalearen agenda campus eta institutueta eramaten zituen. Hemen aipatu daitezke propaganda orokorra, kanpo ekimenen gizarteratzea eta orokorrean hezkuntzatik kanpoko edozein auzi heziguneen espazio fisikora eramateko ekimenak.

2.- Hezkuntzan Ezker Abertzaleak hartutako posizioak babesten eta indartzen zituen. Adibidez, gobernua- ren hezkuntza erreformen kontrako dinamikekin parlamentuko arerio politikoa higitu eta Ezker Abertzaleak bultzatutako alderdi instituzionalaren posizioak indartuz. Greba, propaganda kanpaina eta mobilizazio ugari koka ditzakegu lerro honetan sarri.

Gazte antolakundeko militantzia desdoblatua eta antolakundeen arteko loturak zirela medio, baina baita inertzia eta giro politikoak eraginda ere, esan daiteke Ezker Abertzalea elikatzea zela I Aren funtzioa

3.- Ikasleen sektore euskaldunetan Ezker Abertzalearen hegemonia sozial eta politikoa indartzen zuen, aisialdia- ren bueltan eta ikasleen sozializazioa bere espazioetan izan zedin bultzatuz (jaialdiak, trikipoteoak, Eskola Ibilta- riak...) eta horietan Ezker Abertzalea- ren aldeko iritzia sortuz, batez ere.

Helburu hauek ez dira soilik I Aren siglapean eta parlamentuko neurriak aldarrikatuz betetzen. Hezkuntzaren inguruko irakurketa eta diskurtso bat kontzeptu zehaztugabe eta termino oro-barne-hartzaileetan egituratua, kutsu kritikoa izanik ere, baliagarri gerta daiteke zentzu komunaren po- sizioak indartzeko. Hala, «pedagogia

askea», «hezkuntzaren kritikotasuna» eta antzekoen bueltan egituratutako diskurtso eta praktika batek Ezker Abertzalearen indar metaketa ereduan tokia zuten ikasle masa euskaldun eta ezkertiarra erakartzeko gaitasuna zue- lako. Besteak beste, zuzenean Ezker Abertzaleari subordinatu gabeko ikas- le asanblada, euskara talde, talde eko- logista eta abarrek ere bere tokia dute amaraunean.





TESTUINGURUAREN GARAPENA

Hiru ardatz erabili ditugu testuingurua kokatzeko, eta ardatz berberei jarraika, hamarkadaren erdialderako egoera nola aldatu zen azalduko dugu ondoren:

- Belaunaldien arteko haustura ekonomikoak sakontzen jarraitzen zuen eta proletarizazioak gordinagotzen. 2008ko krisia zeharo gainditzea lortu ez eta krisi sistemikoan geunden ideia errotzen hasi zen. Etorkizunari gero eta ezkorrago erreparatzen zion langile klaseak, eta ongizate estatuaren atzerakada gero eta nabarmenagoa zen. Er-tain klaseko seme-alaba gero eta gehi-gok sentitzen zuen proletarizazioaren hatsa garondoan.

- Ezker Abertzalearen instituzionalizazioari dagokionez, hasierako baikortasun eta esperantzak zabaltzen ari zen ezinegon eta noraez sentsazioari eman zieten bide. Hauteskundeetako emaitzen okertzeak eta presoek auzia kateatuta ikusteak eragina izan zuten, baita Espainiako Estatuan Podemos agertu izanak ere. Politika instituzionalera eta hark zekarren guztira egokitzea irenste-ko zapo gogorra izaten ari zen, eta behin hauteskundeetako zaputza-oren ostean, inor gutxik ikusten zuen, gazteen artean behinik behin, bidea garbi. Ezker Abertzalea ez bazen zeharo desegituratu eta hala moduzko kohesio bat mantentzeko gai izan bazen, orduan bezala hurrengo urteetan ere, komunitatearen indarragatik eta urtetan jasandako errepresioaren ondorioek eragindako loturagatik izan zen. Horri gehitu behar zaio militantzia eredu bat, gehiago dizi-plina eta leialtasunean oinarritua ideia trukean eta kritikotasunean baino, urtetako borrokan hezur muineraino sartua. Proiektu politikoa-ri atxikimendu falta zen kohesio gabe-ziarako arrazoia.

- Campusetan Ikasle Abertzaleak- en militantzia berriz hazten hasi bazen ere, ahulezia garaiek eta hasia zen po-larizazioak eten bat eragin zuen ikasle mugimenduaren transmisioan. Hala, belaunaldi berriek bere egin zuten bi-dea egiteko zeregina, izan nahita edo halabeharrez.

2016/17 IKASTURTEA, ALDAKETARAKO IKASTURTEA

Abian prozesua, *Borroka Garaia Da!* webgunea eta *Kantauri* ponentziaren garaia ere bazen, eta ez litzateke zuzena horiek eta beste hainbat aipatu gabeko kronika. Baina gagozkion oraingoan hezkuntza esparruari. Testuingurua aldatzen ari zen eta Ikasle Abertzaleak ere bai. Aldaketa horretan, 2016/17 ikasturtea inflexio puntu bat izan zen, Ikasle Abertzaleak izatera politikoa-ren bilakaera ikasturte esanguratsua.

2016ko azaroaren 24a Iñaki Goirizelaiak utzi eta Nekane Balluerkak hartu zuen errektoretzaren hauteskunde eguna izan zen EHU. Kanpaina sonatua egin zuen ikasle mugimenduak hauteskunde horien aurka, Ezker Abertzalearen zein EAJren oniritzia izan arren hautagaiak. Unibertsitatearen izaera bera eta unibertsitateak sistema kapitalistan zuen tokia ziren salaketaren muina. Ikasturte hasieratik ekin zioten kanpainak indarra hartu zuen. Azken asteetan asko mediatizatutako propaganda ekintzen kontura giroa berotu zen eta hauteskunde egunean bertan egindako manifestazio jendetsurako Leioako campusa poliziaz josi zuten. Ikusgarria izan zen operatiboa, eta liskarrak eta atxilotuak izan ziren manifestazioaren ostean.

Ziur aski, lehen aldiz egin zen horren era argian Ezker Abertzalearen interesekin talka egiten zuen kanpaina indartsu bat, eta esanguratsua izan zen Ezker Abertzalea bera publikoki desmarkatu izana ere; ikasle mugimendua horren nabarmen seinatu zuen lehen aldia izan zen. Beraz, aldentze baten lehen urratsa izan zela esan daiteke azaroaren 24an gertatutakoa. Bestalde, aipatzekoa da salaketaren edukia ere. Lehenago esan bezala, unibertsitatearen izaerari berari bere osotasunean egindako arbuioa izan zen; sistema kapitalistan betetzen zuen funtzioari erreferentzia egiten zion salaketak, eta ez estatu honen edo haren kontrolean egoteari soilik, ez errektorea hura edo bestea izateari ere.

Ikasturte hartan, soka berari tiraka, San Mameseko teilatuan babestutako Herri Unibertsitatearen desalojoa eta martxoaren 11n Iruñean *Errepresioari Autodefentsa* lemapean egindako manifestazioa aipatzekoak dira. Herri Unibertsitate hartan, nazionalki zentralizatuta egin zen lehenengoan, eduki teorikoa seriozki lantzeko saiakera egin zen, eta, hala, aurreko Herri Unibertsitateetik aurrerapauso bat eman. Bertan, adibidez, feminismoari kritika teoriko eta politikorako edo «Langile Boterearen eraikuntzaz» hausnartzeko saioak izan ziren, tematikan ere bilakaera bat izan zelako lekuko. Martxoko manifestazioa, berriz, ikasle mugimendutik haratagoko dimentsioa izanik, panorama politikoan Ezker Abertzaletik aldentzen hasitako askoren elkar-gune bilakatu zen.


Zergatik dira gertaera horiek mugargri? Gure ustez, etapa berri baten ezaugarriak era garbian azaltzen dituztelako:

- Ezker Abertzaletik urruntze politiko eta sozial/afektibo bat abiatu zen. Era berean, ikasle mugimenduaren praktika politikoaz Ezker Abertzalea elikatzeari uko egin zitzaion aurrerantzean. Baina oraindik, oro har, haren ukapena soilik zuen amalgama hark izendatzaile komun.

- Erreformismoaren adierazpen ugarien kritika politikoa orokortu zen ikasle mugimenduan, eta, hura, marko teoriko egoki baten bilaketan, marxismora gerturatu zen. Teoriaren lanketak ordura artekoa baino garrantzia handiagoa hartu zuen.

- Integrazio politikoaren ukazioa eta haustura politikoaren aldeko posizioa sustatu zen esparru ugarian: okupazioa eta auzi errepresiboa dira bi adibide.





***Ezker Abertzaletik urruntze
politiko eta sozial/afektibo
bat abiatu zen. Era berean,
ikasle mugimenduaren
praktika politikoaz Ezker
Abertzalea elikatzeari uko
egin zitzaion aurrerantzean.
Baina oraindik, oro har, haren
ukapena soilik zuen amalgama
hark izendatzaile komun***





MUGIMENDU SOZIALISTAREN ERDITZEA

Aldaketa garaia zela sumatzen bazen ere, ondo antolatutako mugimendu baten faltan, ez zen guztiz garbi ikusten aldaketa zertan zetzan. Eguneroko praktika politikoak muturren aurrean jarritako galderei erantzunak eman nahian eta ordura arte Ezker Abertzaleak emandako zoru segurua- ren faltan, marko teoriko zein taktika eta estrategia baten faltan, eztabaida, formakuntza eta esperimentaziorako urteak izango ziren zetozenak ikasle mugimenduan. Gazte esparru militantea politikoki eta sozialki polarizatzan ari zen: Ezker Abertzalearekin bat egiten zutenak alde batean, kritikoak bestean. Adinarekin korrelazioa nabarmentzen zen, eskualde/lurraldeen eragina ere bai. Haustura gauzatu zen, xeheago kontatzen ez gara paratuko. Ondorioetara jota, gazte eta ikasle sektore zabal

bat zegoen zer ez zuen izan nahi gero eta garbiago zuena. Ordea, orduan urgentzia hartu zuena zer izan nahi zuen galderari erantzuna ematea zen.

Ikasle mugimendua masa mobilizaziotik aldi baterako aldendu eta esperimentaziora hurbildu zen, esan dugunez. Eskola Kolektiboak indartu ziren, Herri Unibertsitateak abiatutako hezkuntzaren ikuspegi kritikoari helduta, diziplinatan banatutako jakintza kritiko batera hurbildu nahian. Hezkuntzaren eta gizartearen irakurketa kritiko batean kokatzen ziren horiek, baina gero eta gehiago zituzten jo-puntuan formazio sozial kapitalista eta bertako instituzioak, gero eta gehiago ziren irakurketa sistemikoak eta gero eta urrunago zeuden nazio askapen mugimenduen oinarri teoriko eta ideologikoak. Campusetan okupazioak entseatu ziren eta espazioen izaeraren inguruan hausnartu, edo horien

babeserako eta kontrolerako mugak ikusi. Ikas-baldintzen aldeko borrokak erreformismoan ez erortzeko eta eraginkortasunean irabazteko probak ere egin ziren: Arrasateko Arizmendin (Arrasate), Orixen (Tolosa) eta Eunaten (Iruña) kasu sonatuenak. Barnera begirako lana ere erruz egin zen: militantzia eredu indartu zen eta areagotu egin zen konpromisoa, eta ikasle mugimenduko egiturak findu eta eraginkortu egin ziren.

Zenbaitetan asmatuta, eta askotan hanka sartuta, urte horiek proletalgoaren klase independentziaren aldeko tesia garatzeko eta gizarteratzeko balio izan zuten.



MUGARRI BERRI BAT: ZER EZ EGITETIK ZER EGITERAKOA

Ziklo honen itxiera Ikasle Abertzaleak antolakundearen VII. Kongresuak markatu zuela esan daiteke, 2018ko irailean hasi eta 2019ko apirilean amaitu zena. IA eta ikasle mugimenduaren baitan aldaketak gertatzen ari ziren jakitun, ikusmin handia zegoen jarria IAren jardunean, eta ez beti asmo onekoa. Hala, soilik amaitutakoan eman zen ikasturte osora luzatu zen kongresuaren berri, apirilean Berriozarren (Iruñerria) egindako ekitaldian. Prozesu parte-hartzailea izan zen, bai aktiboki jardun zuen militante kopuruagatik, baita ponentzia osatu eta eztabaidatzeko metodologiagatik ere. Horren ondorioa izan zen antolakundearen kohesioan eta motibazioan izan zuen eragin positiboa, zeinak garrantzia hartu zuen bolada nahasian.

Itaia udazkenean sortu zen blog bat zen oraindik, artean antolakunde gisa osatu gabea, eta Gazte Koordinadora

Sozialista otsailean aurkeztu zen. Tesuinguru horretan, IAren kongresuan osatutako *Errainu* ponentzia lehen urratsak ematen ari zen Mugimendu Sozialistaren testu definitorio gisa hartu zen, hezkuntza esparruan kokatzen bazen ere.

Langileek jasaten dituen zapalkuntza guztien oinarrian klase dominazioa dagoen ideiatik abiatuta, hezkuntza dominazio estrukturalaren baitan burgesiaren tresnatzat hartzen zen ponentzian. Beraz, hezkuntza kapitalista gainditzea dominazio burgesaren adierazpen konkretu guztien aurkako borrokarekin lotuta zegoen ezinbestean.

Ordura arteko sei kongresuetan bezalaxe, Euskal Eskola Nazionala (EEN) IAren helburu estrategiko gisa onartu zen, baina honen konprezioan urrats bat emanda: estatu sozialistaren hezkuntza instituzioa izango zen EEN. Hezkuntza esparruko helburu estrategikoaren aldeko borrokak helburu estrategiko orokor baten baitan

artikulatua behar zuen: Euskal Estatu Sozialista zen hori. Sozialismoaren definizioa zen, hain zuzen ere, EENri konprezioa ematen ziona, eta hezkuntza esparruak honekin izan beharreko lotura ere argia zen. Sozialismoaren eraikuntza prozesuala izan behar zela argitu eta boterea instituzio proletarioen garapenaren ondorioz sortu behar zela bildu zuen ponentziak. Gero eta eskala handiagoan erreproduzituko diren instituzioak, langile antolatuei gero eta eremu eta esparru gehiago kontrolatzea ahalbidetuko dietenak. IAren zeregina, beraz, zera zen:

'Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntzak duen gaurkotasuna botere konkretuak barnebiltzen dituzten eta hedatzeko gaitasuna duten instituzio proletarioak eraikitzean datza, hau da, esparru ezberdinetan burgesiari eta bere boterearen modalitate guztiei aurre egiteko gaitasun konkretuen eraikuntzan.'



Bestalde, eguneroko eztabaida politikoen zentroan zeuden auzi batzuen inguruko argipenak ere eman ziren, eta horrela zapalkuntzen gaindipenari dagokionez interseksionalismotik aldentu zen: sozialdemokrazian nagusi diren tesi ekonomizisten aurka, sozialismoa borroka ekonomikotik haratago osotasun berri gisa aurkezten zuen testuak. Sozialismoaren eraikuntzaren baitan kokatzen zituen genero askapenaren aldeko borroka eta nazio zapalkuntzaren gaindipenerako borroka ere, funtsean, zapalkuntza bakoitzaren eta guztien aurkako borroka artikulatzen duen forma politiko baten eraikuntzan jarritu itua.

Errainu ponentziak, azkenik, taktikaren definizioa ere ekarri zuen: hezkuntza funtzioak neutralizatzea eta prozesu sozialista orokorra elikatzea jotzen zituen antolakundearen epe luzeko helburu taktiko gisa. Hirugarren lerro bat ere zehaztu zuen, EENren bueltan, sozialismoaren eraikuntzari

subordinatutako eduki teorikoa ekoizteko ikusmiran eta hertsiki lotuta garratzen ari ziren Herri Unibertsitatearen eta Eskola Kolektiboen ekimenei.

Eztabaida eta esperimentazioko urte batzuen ostean, ikusten denez, izatera politiko eta taktikaren definizioa eta ikasle mugimenduaren baitako homogeneousazioa eta kohesioa ekarri zituen kongresuak. Hala, ikasle mugimenduaren berregituraketa abiatu eta masa lerro deritzenak indartzeari ekin zioten. Antolakuntza forma inoperatiboak moldatu eta funtzional egitea zen erroka handietako bat. Horren adibide izan zen Unibertsitateko Indar Batasunaren (UIB) sorrera. Ordura arteko ikasle asanbladen antolatzeako modua agortu zela iritzita, unibertsitateko langileria bizi-baldintzen aldeko borroka haratago eramateko anbizioz jaio zen UIB. Izan ere, hutsune bat nabari zen esparru horretan eta ordura arte ikasle asanbladetan antolatzeako ereduan muga batzuk ikusten ziren.

Hauek dira horietako batzuk:

- Arazoak modu isolatu batean uler-tuta, horiei aurre egiteko modua ere era atomizatuan planteatzeko joera zen nagusi. Fakultatez fakultate antolatutako asanbladetan maiz abiatzen ziren problematika propioen (asanbladaren edo are asanbladan pisua zuten militante partikularren problematika propioen) inguruko borroakak. Ez zuten lortzen ikasleen atxikimendua fakultatetik harago, eta fakultateko lau hormen barruan itotzen ziren. Horrela, ikasleen arteko batasunaren baitan antolatzeako printzipioa gauzatu ezina egiten zen.

- Soilik ikasleek eta ikasleentzako egindako espazioak izanda, unibertsitateko gainontzeko sektoreekin (izan garbitzaile, ikertzaile edo bestelako langileekin) elkarlana ez zen lortzen.

Nabaria zen sektore horiek borroka prozesuetan integartzeko ezintasuna eta elkartasun sinbolikotik haratago klase batasuna ezinezkoa zen.



Errainu ponentziak, azkenik, taktikaren definizioa ere ekarri zuen: hezkuntza funtzioak neutralizatzea eta prozesu sozialista orokorra elikatzea jotzen zituen antolakundearen epe luzeko helburu taktiko gisa

· Azkenik, borrokak era partzialean ulertuta, norabide zehatz baten falta agerikoa zen behin eta berriz. Asanbladak noraezean aritzen ziren; pisua zuten militanteen momentuko motibazioaren menpe batzuetan, zereginik gabe besteetan, ikasturte hasiera bakoitzean egoera berria zein izango zen jakin gabe edo zuzenean noraezak blokeatuta. Planteamendu politiko bat elikatzetik urrun, onenean momentuko haserrea antolatzen mugatzen ziren asanblada tradizionalak.

Muga horiek gaingintzera begira sortu zen UIB 2019ko martxoan. UIBk ikasle mugimendua garatzeko planteamendu bat jarri zuen martxan. Hark ordura arteko forma hartu zuen abiapuntu eta borroka prozesuen zentzuan aurrerapauso nabarmenak lortu zituen.

Antolamenduari dagokionez, asanblada guztien arteko lotura ekarri zuen. Unibertsitatearen analisi bateratu bat egin zen, eta itxuraz desberdinak eta arrotzak ziren problematikek erro komun bat zutela onartu zen: unibertsitate eredu burgesararen mugak. Hori horrela, asanbladek programaren gauzapenera bideratu zituzten borroka prozesuak, eta asko izan dira ordutik abiatu diren gisa horretako borrokak.

Indar metaketa da hamarkada osoan zehar eztabaida politikoak ardatzitu zituen kontzeptuetako bat: nola, baina batez ere, zertarako metatu indarrak? UIBren helburua programa politiko baten inguruko indar metaketa egitea da, eta programa hori unibertsitate esparruko langile klaseak jasaten dituen zapalkuntzen dekalogo bat da. Horrela, helburua ez da izaten borroka espontaneoaren kudeaketa, programa taktiko-politiko bat elikatzea baizik, borroka prozesu konkretuetan oinarrituta eta horiek hartuta sostengu gisa. Gainera, ikasleengandik haratago joan eta borroka horiek ikerlari eta garbitzaileen esparruetara ere iristen dira. Era berean, ikerlari eta garbitzaile horiek beste borroketan parte hartzen dute. Langile sektore ezberdinak integratu eta klase batasunaren printzipioa

bere egiten du UIBk, programan eta borroketan ere islatzen dena. Eskalan planteatutako helburuekin, alegia, indarren araberrako borroka prozesuak abiatuz, UIBren helburua da bere eskakizunak exijitu eta gauzatu daitezen lortzeko gero eta gaitasun handiagoa izatea, hori baita azken finean unibertsitate eredu burgesa konfrontatzeko bidea: antolatutako langile klaseak bere aldarrikapenak inposatzeko gaitasunak izatea.



***UIBren helburua da bere
eskakizunak exijitu eta gauzatu
daitezen lortzeko gero eta gaitasun
handiagoa izatea, hori baita azken
finean unibertsitate eredu burgesa
konfrontatzeko bidea: antolatutako
langile klaseak bere aldarrikapenak
inposatzeko gaitasunak izatea***



HAMARKADA BAT HEZIGUNEETAN

Hala bada, hamarkada bukaerarako aldatua zegoen zeharo hezkuntza esparruko testuinguru politikoa. Alde batetik IA, sozialista iraultzaile gisa definitutako antolakunde gorakor bat, eta, bestetik, UIB, unibertsitateko langileen bizi-baldintzen alde egiteko antolakunde zabal bat; Ezker Abertzalea ia desagertuta (urte batzuen buruan berriz errekerperatzen hasi bada ere) eta urte mordoxka bat bien artean.

Horixe izan da hamarkadarekin hasi eta 2019/20 ikasturtera artekoaren kronika bat. Testuaren mugak begi-bistakoak dira, bai luzerari, bai sakontasunari dagokionez, eta mahai-gainean jarritako hipotesi eta uste batzuk zailantzan jartzekoak, ziur. Bizkor aldatzen eta garatzen ari den testuinguru politikoan, eztabaidarako oinarri gisa balio dezake. Era berean, ondoren kontakizun osatuagoak eta analisi finagoak egiteko oinarri izan daiteke.

Besterik gabe, Ikasle Abertzaleak eta ikasle mugimendua gaur egun direna izateko lan egin dutenei aitortza eta datorren hamarkada amaierako kronikan beste hainbeste aurrerapauso konta daitezen egungoei indarra eta anbizioa. ●

Argitalpena
2022KO AZAROA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia


arteka

